**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**5515**

AGINDUA, 2008ko abuztuaren 28koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena. horren bitartez, baimendu egiten da, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.6 artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko gutxieneko lurzoru-estandarra, Basauriko Kalero-Basozelai B Banaketa Areako 08 egikaritze unitatetik Baskonia D/CD Areara etxebizitzak transferituta.

Basauriko Udalak Kalero-Basozelai B Banaketa Arean babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko legezko aurreikuspena Baskonia D/CD Arean egindako erreserbarekin konpentsatzeko aurkeztutako baimen-eskaera aztertu da, adierazitako lehenengo eremuan murriztutako estandarra bigarrenean sartutakoarekin osatzen delarik.

GERTAKARIAK

***Lehenengoa.–*** Basauriko Udalak aurkeztutako eskaera-orriari sarrera-erregistroa egin zitzaion. Eskaera-orri horren bidez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.6 artikuluan aurreikusitako baimena eskatu zen, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Kalero-Basozelai B Banaketa Areako UE8an lege-testu horren 80. artikuluan aurreikusitako babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko estandarra transferitzeko.

***Bigarrena.–*** Ezarritako prozedurarekin bat etorriz, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak honen txostena eman zuen uztailaren 17an egindako 5/2008 bilkuran, eta bertan adierazi zen Hiri Antolamendurako Plan Nagusia Kalero-Basozelai B Banaketa Areako 08 Egikaritze-unitatean aldatzearen berri.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

***Lehenengoa.–*** Sail hau eskuduna da aztertzen den espedientea ebazteko, betiere Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.6 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

***Bigarrena.–*** Aurkeztutako eskaerak 08 EUan babes publikoko etxebizitzetarako lurzoru-estandarraren konpentsazioa planteatzen du, hots, bizitegi-eraikigarritasunaren 1.012,82 m2(s)-ko hazkundea, azalera guztia ere etxebizitza librerako delarik. Horietatik, 405,12 m2(s) babes publiko etxebizitzetarako izango da: gutxienez 202,56 m2(s) (1.012,82 m2(s)-ren % 20) erregimen orokorreko edo bereziko babes publikoko etxebizitzentzako izango da eta gainerakoa, % 40 arte iritsi arte,

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES**

**5515**

ORDEN de 28 de agosto de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se autoriza, de conformidad con el procedimiento previsto en el artículo 80.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, el cumplimiento global de los estándares mínimos de viviendas de protección pública mediante transferencia de viviendas entre la Unidad de Ejecución 08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai y el Área D/CD Baskonia del municipio de Basauri.

Vista la solicitud de autorización presentada por el Ayuntamiento de Basauri, para compensar la previsión legal de ejecución de viviendas de protección pública en la Unidad de Ejecución 08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai con la reserva efectuada en el Área D/CD Baskonia, en cuanto que el estándar suprimido en el primero se suple con el introducido en el segundo de los ámbitos señalados.

Resultando que se registra entrada de la solicitud del Ayuntamiento de Basauri, mediante la que se solicita la autorización prevista en el artículo 80.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, para transferir el estándar de suelo destinado a la construcción de viviendas de protección pública, previsto en el artículo 80 del citado texto legal, de la UE8 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai del Plan General de Ordenación Urbana.

Resultando que, de conformidad con el procedimiento establecido, este expediente, ha sido informado en la Sesión 5/2008 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 17 de julio al informarse el expediente de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana en la Unidad de Ejecución 08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai.

Considerando que este Departamento es competente para resolver el expediente que se examina, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 80.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Considerando que la solicitud presentada plantea la compensación del estándar de suelo destinado a viviendas de protección pública en la UE 08, en la que se plantea un incremento de edificabilidad residencial de 1.012,82 m2t, de los cuales la totalidad se destina a vivienda libre, debiendo adscribir 405,12 m2t destinados a viviendas de protección pública, con un mínimo de 202,56 m2t (20% de 1.012,82 m2t) destinados a viviendas de protección oficial de régimen general y/o

erregimen tasatuko babes publikoko etxebizitzentzako, eremu berean.

***Hirugarrena.–*** 2/2006 Legearen 80.6 artikuluaren arabera ezinbestekoa izango da transferentzia hori baimentzeko transferentziaren xede diren eremuetako etxebizitza libreen arteko balioen aldearekiko proportziozkoa den babes publikoko etxebizitzen aldez aurreko edo aldi bereko egikaritzea bermatzea.

***Laugarrena.–*** Basauriko Udalak eskatu du Baskoniako D/CD Areara egitekoa den transferentzia. Eremu horietako etxebizitza libreen arteko balioen aldeari buruzko justifikazio-txostena aurkeztu du (1,15ekoa da). Horrela bada, transferituko den bizitegirako hirigintza-eraikigarritasuna gutxienez 1,15 bider sustatuko da eremu hartzailean.

***Bosgarrena.–*** Eremu hartzailean, Baskonia D/CD Arean, legez dagokion erreserbaz gain, 465,88 m2(s) (405,12 m2(s) x 1,15) erreserba egingo da, babes publikoko etxebizitzetarako. Horietatik, 232,94 m2(s) erregimen orokorreko edo bereziko babes publikoko etxebizitzentzako izango da eta gainerako portzentajea, 465,88 m2(s) arte iritsi arte, erregimen tasatuko babes publikoko etxebizitzentzako.

***Seigarrena.–*** Baskonia D/CD Arean 136 BOE daude aurreikusita (arearen % 100), 13.031,40 m2(s)-ko eraikigarritasunari dagozkionak. Beraz, eremu horrek har ditzake Kalero-Basozelai B Banaketa Arearen 08 EUan defizitean dauden 465,88 m2(s) BPEk.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aztertu da, baita Euskadiko Antolamendu Batzordeak emandako aldeko txostena ere.

XEDATU DUT:

***Lehenengoa.–*** 2/2006 Legearen 80.6 artikuluan aurreikusitako transferentzia (hots, Kalero-Basozelai B Banaketa Areako 08 EUtik Baskonia D/CD Areara) baimentzea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko aipatutako Lege horretan ezarritakoari jarraiki.

***Bigarrena.–*** Baimen hori Testu Bateginean elementu bat gaineratzearen baldintzapean uztea, hots, Kalero-Basozelai B banaketa Areako 08 EUko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aldaketan espedientea bete dela justifikatzea, betiere 2/2006 Legearen 80. artikuluaren arabera.

***Hirugarrena.–*** Baimen hori aurreko ataletan ezarritako baldintzetan ematen da, eta ez du baliorik izango behin betiko onarpena babes publikoko etxebizitzen gutxieneko estandarrak betetzeari dagokionez eskumena duten esparruren batean (hartzaileak edo igorleak)

especial y el restante porcentaje hasta alcanzar el 40% con destino a viviendas de protección oficial de régimen tasado, en el propio ámbito.

Considerando que en virtud del artículo 80.6 de la Ley 2/2006 será requisito imprescindible para autorizar dicha transferencia que se garantice la ejecución previa o simultanea de un número de viviendas de protección pública proporcional a la diferencia de valores entre las viviendas libres de los ámbitos objeto de la transferencia.

Considerando que el Ayuntamiento ha solicitado dicha transferencia al Área D/CD Baskonia, aportando una memoria justificativa de la relación entre los valores de vivienda libre en ambos ámbitos, siendo dicha relación de 1,15 y por tanto, se debe promocionar en el ámbito receptor como mínimo 1,15 veces la edificabilidad urbanística destinada a uso residencial protegido que se transfiere.

Considerando que se deberá adscribir en el ámbito receptor, Área D/CD Baskonia, además de la reserva que le corresponde por ley, una reserva de 465,88 m2t (405,12 m2t x 1,15) destinados a viviendas de protección pública, con un mínimo de 232,94 m2t destinados a viviendas de protección oficial de régimen general y/o especial y el restante porcentaje hasta alcanzar los 465,88 m2t con destino a viviendas de protección oficial de régimen tasado.

Considerando que en el Área D/CD Baskonia se prevén 136 viviendas de VPO (100% de área), correspondientes a una edificabilidad de 13.031,40 m2t, por lo que dicho ámbito tiene capacidad suficiente para acoger los 465,88 m2t de VPP deficitarios de la UE08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai.

Vista la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, así como el informe favorable emitido por la Comisión de Ordenación del País Vasco,

DISPONGO:

***Primero.–*** Autorizar, de conformidad con lo establecido la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la transferencia de viviendas prevista en el artículo 80.6 de la referida Ley de la UE.08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai al Área D/CD Baskonia.

***Segundo.–*** Condicionar dicha autorización a la incorporación en el Texto Refundido de la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana en la UE.08 del Área de Reparto B Kalero-Basozelai de la justificación del cumplimiento del expediente conforme al artículo 80 de la Ley 2/2006.

***Tercero.–*** Dicha autorización se concede bajo las condiciones establecidas en los apartados anteriores, quedando invalidada en el caso de que la aprobación definitiva se concediera bajo otras condiciones que implicarán modificación de alguno de los ámbitos impli-

aldaketarik eragiten duten beste baldintza batzuekin ematen bada.

***Laugarrena.–*** Basauriko Udalari Agindu honen berri ematea.

Agindu hau behin betikoa da eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesatuek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Halaber, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu honetan ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertzeko errekurtsoa espresuki erabaki edo bere ustezko gaitzespena gertatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abuztuaren 28a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

cados (receptores o emisores) en el cumplimiento global de los estándares mínimos de viviendas de protección pública.

***Cuarto.–*** Comunicar la presente Orden al Ayuntamiento de Basauri.

La presente Orden es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo podrá interponerse también recurso de reposición ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 agosto de 2008.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.